

MAIALENEN EGUNEROKOA

Nerea Urrestilla Alkorta

Azpeitia

(2011/06/15)

Goiz esnatu naiz. Ikasi beharra neukan. Unibertsitatean leporaino gaude azterketak direla eta ez direla.

Bazkalorduan Ikerrek deitu dit. Nire mutila da Iker. Institutuan ezagutu genuen elkar. Eta begira nola amaitu dugun! Berehala esango nuen. Afizio eta ofizio berdintsuak ditugu. Pentsa, biok medikuntza ikasten hasiak gara. Oso harreman ona dugu.

Ea zer moduz ari naizen ikasten galdetu dit. Berak ikasita omen du ia dena. Oso mutil azkarrak eta saiatua da. Aste honetan bost urte egin ditugu elkarrekin! Zoratzen nago eta egunetik egunera hobeto ulertzen dugu elkar.

(2011/06/23)

Azterketa guztiak gainditu ditut! Eta hori ez da hoberena. Praktikak Donostiako ospitalean egi-

tea eskaini didate. Aukera aparta litzatekeenez, bi aldiz pentsatu gabe onartu dut. Pozez zorutzen nago! Ekainaren 29an hasiko naiz. Ordutegi aparta izango dut: goizeko seietatik eguerdiko ordubiak arte. Horrela ikasi edota hondartzara joateko aukera izango dut.

(2011/07/15)

Bi aste daramatzat hemen Donostian. Oso gustura nago. Lan eta lan, baina lan talde polita osatu dugunez, nekatuta baina zorutzen nago.

Eta Iker? Hori da nire kezka nagusia... Amaitu ditu ikasketak. Baina niri ez bezala, ez omen diote inondik deitu. Kurrikulumak entregatu eta entregatu omen dabil. Eta ez omen du batere zorterik izan. "Omen" gehiegitxo, beharbada.

Ez dut ondo ikusten, triste eta ezkor sumatzen dut, eta hori ez da normala berarengan... Beti izan da mutil alaia. Kezkaturik nauka.

(2011/08/05)

Oporrak gainean dira, baina ez nago kontent. Ikerri lana eskaini diote Ingalaterran, oso urrun. Aukera aparta dela, eta onartu egin du. Apartatzeko aukera esan nahiko zuen.

Bihar du hegaldia. Gabonak arte ez dut ikusiko. Beldur naiz gure artekoa hoztu egingo ote den, distantzia ez baita lagun ona. Hala ere pozten naiz beragatik... Pozik ikusten dut bera. Alaiegi agian,

axola ez balio bezala gure artekoa. Ez dakit zer, baina badakit zerbait ezkututzen didala...

Baina tira, ezin dut emazte jeloskor baten antzera jokatu. Gabonetan bueltatzen denean, hartuko dugu hitz egiteko astia, bizitza oso bat baitaukagu zain.

(2011/10/23)

Zaila egiten ari zait urruntasun hau. Hasieran ia egunero hitz egiten genuen elkarrekin, baina badira bi aste beraren berririk ez dudala. Gaur deitu dit aspaldiko partez. Eta elkarrizketa ez da izan nik nahiko nukeen modukoa.

Hastapenean hiruzpalau egunetara etortzekoa zen, baina ezin izango duela etorri esan dit, azalpen gehiagorik gabe. Lanean ondo dabilela. Egun batzuk izango dituela libre, baina ez duela merezi etortzea hain egun gutxitarako. Eta kitto! Agur eta beste bat arte!

Iker beti izan da mutil alaia. Beti gauza gozoak eta politik esaten zizkidan belarrira. Baina gaurko deiak hoteleko erreserba ezeztatzeko deia gehiago zirudien bikote batena baino. Sentsazio arraro batekin geratu naiz telefonoa eskegi dudanean.

(2011/11/05)

Aspalditxotik ez dut Ikerren berririk. Sentsazio mingots bat sortzen hasi zait barnean. Urrun-

tzen ari diren bi itsasontziren artekoa, agian inoiz berriro elkar gurutzatuko ez direnena. Berehala pentsatuko nuen uda partean halakorik! Hala ere egunetik egunera ohikoagoa ari zait gertatzen egoera hau.

Ingurukoek lasai egoteko esaten didate. Lan askorekin ibiliko dela agian. Gauzak “pole-pole” hartzeko, gero damutuko naizen ezer ez egiteko. Baina ni ez naiz geldirik geratzen den horietakoa. Ez dakit zer pentsatu, edo agian gehiegi pentsatzen dut. Edonola ere argitu beharra daukat.

Oporretako hiru egun hartu ditut, eta aste bukaerarekin batera bost egun Ingalaterrara joatea erabaki dut.

(2011/11/10)

Zelako ustekabea! Bizitzan izan dudana egun luze, penagarri eta tristeena izan dut. Ikerrekin egon naiz, eta orain ulertzen dut guztia. Zita desastre hutsa izandu da. Egia osoa kontatu dit azkenean. Edo hobeto esanda, neuk behartu dut esatera. Banekien zerbait ezkutatzen zidala, baina ez nuen horrelakorik espero.

Ni ikustean zur eta lur geratu da. Ez zekien non ezkutatu. Ezin zituen bi hitz segidan taxuz josi. Zer gertatzen den galdetu diot. Nik ezagutzen nuen Iker, non zegoen galdetu diot. Eta nigarrari ezin ziola eutsi sumatu dut.

Ingalaterran berak lan egiten duen zentroan lagun berezi bat omen du.

–Eta nola du bada izena?

–Josh.

–Baina hori ez al da bada mutil izena?

–Ni pertsonenez maitemintzen naiz –izan da bere erantzuna.

* * *

Inongo azalpenik gabe alde egin dut. Hotelera iritsi naizenean, ohera salto egin eta negarrez hasi naiz. Mila zati txikitan hautsiriko ontzia nirudien...

(2011/11/12)

Kolpea izugarri gogorra izan da. Bost urte elkarrekin, elkar hobeto ulertzen genuelakoan... Asko ari zait kostatzen burua altxatzea. Hamaika “sms” bidali dizkit Ikerrek. Dena argitzea nahi du, ez omen du nahi horrela amaitzea gureak... beno, hori dio behintzat. Mundua gainera erori zait. Nahiz eta zerbait bazegoela uste izan, ez nengoen halako kolpea jasotzeko prestatua.

(2011/12/21)

San Tomas eguna. Jai giroa kalean. “Txorixue eta talue”. Urteari amaiera emateko egun aproposa. Aurtengoa ondo gogoan izango dut behinik behin. Dudarik gabe.

Gabonetako oporrez baliatuz Iker etxera itzuli da. Ea banuen momenturik berarekin hitz egiteko. Ez nuen gogo apurrik, baina eman beharreko azalpenen kuriositatea gailendu da.

Hizketan egon gara, edo hobekiago esanda aitzakiak jartzen. Nire anaiak dioen bezala “arta zuritzen”; eta barkamena eskatu dit. Ba omen daki ez zela modurik egokiena izan. Damutua dagoela gauzak nola eraman dituen, eta asko sentitzen duela. Ni zoriontsu izatea nahi omen du. Eta bizitza berri bat hasteko, berak egin duen moduan.

Bizitza berri bat? Inozo halakoa! Zer uste du? Nik ez dut nahi bizitza berririk, nireari fundamentuz eustea baizik.

(2012/01/01)

Urte zahar, urte berri! Pozik nago. Etxean familiarekin Urte Zaharreko afaria eta gero, lagunekin atera naiz. Kalean giro aparta, jendez gainezka. Eta taberna batean mutil bat ezagutu dut. Ez dakit askotxorik berari buruz. Beraren izena, argazkia eta mugikorraren zenbakia baino. Aitor du izena, eta zenbakia... ia ahaztu egin zait! Eskerrak poltsikoan neraman egutegi zaharrean apuntatu dudana. Mugikorrean Iker ezabatu, eta bere lekuan Aitorren zenbakia gorde dut.

Ez dut azkarregi joan nahi, eskarmentua badut lehen ere. Baina barnean piztu zaidan sugar txiki honek, kili-kili egiten dit. Eta zer demontre!

Atsegin dut.